

## **6 KOORDINATUAK**

### **6.1 ERANTZUNAK: Koordinatuak**

1. Eztabaidetan beti ere apaltasuna adierazten zuen, baita solasaldi gozoetan ere.
2. Garai bateko idazleek ez ezik, oraingo zenbaitek ere elaberri mardulak idatzi ohi dituzte.
3. Telebista kate honetan ez ezik, besteetan ere lelokeriak entzun daitezke.
4. Aurten adiskideek ekarri dizkidatenak ez dira opariak izan, nahigabeak baino.
5. Domingok bi pentsakizun baino/besterik/baizik ez zituen buruan: dirua eta apostuak.
6. Hamar baino ez ziren izango / Hamar baino gutxiago izango ziren une hartan tabernan zeuden bezeroak.
7. Gure txirindulari ezagunak tropelaren aurrean tinko eta erne ibili beharrean, atzean eta erdi lotan ibili ziren.
8. Gizonezkoak egurretara ez joateaz gain, uko egiten zioten mendiko belardiak segatzeari.
9. Besterik ez genuen behar genuen gure ametsak betiko gal zitezen!
10. Eskutitzak irakurri besterik ez zuen amaren estuasuna eta nahigabea sumatzeko.
11. Amore eman ezean, hemendik nahiz handik izorratuko zaitu hurrengoan.
12. Irribarrea zabaldu ez ezik, begiak bizi-bizi jarri ere egin zitzaizkion, ideia dibertigarriren bat bururatu balitzaio bezala.
13. Guk egindakoaren ondoren, afaritxo bat bederen ordain dezatela.
14. Berak baino ezin du hori erabaki.
15. Ainhoak izan ezik, denok jarri dugu /denek jarri dute dirua.
16. Museo horretan umeez hainbat gauza ikusteaz gain, ikasi (ere) egiten dute.
17. Behar zuenean lagundu ez izana beste penarik ez dut.